

Xumearen indarra

Asier Urkiza

Literatura Unibertsala bildumaren azken ale-sortan argitaratu da Edna O'Brien-en

Landa aldeko neskak nobela. 1960an kaleratua, gerora ibilbide luzea izan duen –narrazioan, poesian zein saiakeran– idazle irlandarraren *opera prima* dugu. Ondorengo urteetako beste bi lanekin osatzen du trilogia, *Girls with green eyes* (1962) eta *Girls in their married bliss* (1964) liburuekin, hain zuzen. Eleberriak zalaparta handia sortu zuen garaiko irlandar gizartean, herrialdearen jite kontserbado-rea zela-eta. Instituzio erlijiosoan eta gizarte katoliko itogarriaren salaketa igar daiteke, izan ere.

Caithleen Brady da eleberriko protagonista, eta lehenengo pertsonan ematen dio irakurleari landa eremuko bere herriko bizimoduaren berri. Bere aita alkoholikoak tratu txarrak ematen dizkio amari, zeina narrazioaren erdialde aldera hilko baita.

Aitaren mehatxua etengabeko presentzia izango da Caithleenentzat. Ondorioz, sorteria nola



'Landa aldeko neskak'

Egilea: Edna O'Brien.

Itzultzailea: Gema Lopez Las Heras.

Argitaletxeak: Erein-Igela.

edo hala utzi nahian ibiliko da bere lagun Babarekin batera. Jaioterritik beste herri bateko komentura; eta handik egotziak izan ondoren, hiriburura, Dublina egingo du bikoteak. Umearen inozentzia eta nerabearen grina uztartzen dira orduko gizartearen erretratua eskaintzen digun Kateren begirada sotilean. Idazleak ezin hobeto baliatzen du protagonistaren ikuspegiaren anbigualentzia, eta era egokian banatzen ditu, hizkera ustez xalo eta xumean, aldian behin aurki daitezkeen iruzkin zorrotzak. Protagonistaren sentimenduez aritzeko, kanporako begirada soila darabil autoreak, barne-bakarrizketaren partez.

Estiloa da nobelaren ezaugarriarik aipagarrienetakoa. Egunero kontuez, bizimodu arruntez dihardu Katek, baina egileak haragoko zerbait iradokitze gaftasuna du. Konkretuaz idatziz abstraktuena azaleratzea, hortxe idazlearen erronka handienetako bat. O'Brienek horixe erdiesiten du, deskribapen zehatz eta bizien bitartez bezainbat eszena-girotze ezin eraginkorragoekin. James Joycen –liburuan azaltzen da bere izena, bestalde– lehenbi-

ziko lanak gogora dakartza liburuak: *Dublindarrak*, bere deskribapen eta pertsonaia xeberren saldoagatik; *Artistaren gaztetako portreta*-rekin, ordea, kontrako harremana du, esperientzia erlijiosoaren irudi bestelakoa ematen duenez, Joycek transzendentziaz jantzen zuen hori deskralizatuz. Umoreak toki handia du horretan.

Aipatutako giro erlijioso heretsiaren salaketa ez ezik, emakumearen independentziaren aldarrikapena dago liburuan. Ildo horretan, nabarmena da Kateri hainbat pasartetan darion barne-indarra, neskatila gazte eta ezjakinaren irudia hausten duena. Kontzientzia feminista berezkoa, intuiziozkoa ernatzen zaio protagonistari, nolabait amarekiko lotura duena iturburu. Babarekin izandako ikamiken gaintetik

– tira, nerabezaroan Babak Kateri emandako tratua gorabehera, hobe esanda –, eta izaera zeharo ezberdina badute ere, bi nesken arteko laguntasunak gizarteko konbentzio eta itxituren aurkako aliantza osatuko du: «Hantxe gindoazen landa aldeko neska kaskarin bi, hiri handi-
ra jauzi egiteko irrikaz...».